

BARAKALDO. Gurutzetan egingo ditue etxebizitza sozialak

INIGO AZKONA

Eraikuntza lanak martian hasi gura leukez Udalak. Argazkian, Bilboko etxebizitza sozial batzuen obrak.

Udalak 108 etxebizitza sozial eregi gura ditu

Martiaren 1ean hasiko dira eskariak hartzen, Arteagabeitian etxea lortzeko

Erredakzioa

Udalak etxebizitza sozialak egiteko asmoa dauka, Gurutzeta auzuneko Arteagabeitia aldean; hori halan, beste pauso bat emoteko data be zehaztu dau: Diego Moyanok, Udaleko Urigintza zinegotziak esandakoa-ren arabera, «martiaren 1ean zabalduko da Arteagabeitian etxebizitza eskatzeko epea».

Arteagabeitian, 108 etxebizitza egin gura ditu Udalak, eta, horregaz batera, 285 aparkaleku be egingo ditu. Obrak nori emon oraingo hilean erabagiko da, Udalaren asmoa lanokin

datorren hilean hastea da eta, beti be Moyanok adierazotakoaren arabera.

Lau urteko egitasmoa

Arteagabeitiako etxebizitzak egiteko, Udalak lau urteko epea ipini dau. Guztira, 14.360 metro koadroko azaleran egingo da obraren bat edo beste, eta aurrekontuan ipinitakoa bete ezker, 1.200 milioi pezetako kostea eukiko dau etxebizitza sozialak eta aparkalekuak eregitak.

Egitasmoaren ganeko azalpenak emotean, Moyanok azpimarratu egin eban «helburua Arteagabeitiarako beste urigu-

ne bat egitea» dala. Hori halan, plaza bat be eregi gura dau Udalak, Arteaga eta Ekonomia kaleen artean, eta plaza barri horren azpian egingo leukie bizilagunenak aparkalekua, hiru solairu eta 285 leku eukiko leukezana.

BILBO**Santa eskean urtengo dabe, bihar, Santutxuko bertso eskolakoek eta Asapala euskera taldeak deituta**

Beste herri askotan egingo dan lez, Bilboko Santutxu auzunean be santa eskean urtengo dabe, bihar Santa Ageda eguna dala eta. Dana dala, badauka berezitasunik Santutxuko egitarauak: goizeko 1etan AEKren euskaltegian batzeko deia egin dabe, Arbidea kalean, eta orduan hasiko dira, lehenengo Arbolantxan eta Txurdinagan zehar ibiliko dira kantuan. Gero, arratsaldeko 15:00etan, bazkaria egingo dabe, eta ostean, arratsaldeko 19:00etan, Ama Birjina Erreginarean elizan batuko dira ostera, handik urteteko Santutxuko tabernetara, eskean urten be. Ibilaldiak gaueko 21:00etan izango du amaiera, Bastida enparantzan. Aitatzekoa da antolatzaileek Begoñako euskaldunen kantua berreskuratzeko asmoa daukiela.

PORTUGALETE**Herriko lanbakoek % 70, 25 urtetik beherako andrazkoak dirala ondorioztatu dau ikerketa batek**

Andrazkoen bazterkeriaren kontrako ekintzak antolatzeko asmotan, Udalak ikerketa egin dau, gero lehentasuna zein arlori emon behar deusan erabagi ahal izateko. Ikerketaren emaitzetariko bat lanbakoek ezaugarriak finkatzea izan da; horren arabera, beharrik ez daukienen % 70 andrazkoak dira, nahi eta INEMen izena emonda daukien % 43 gizonezkoak izan. Hantxe azaldu eban Lola Ziordiak, Udaleko Ongizate zinegotziak. Ziordiak emondako datuen arabera, 1996an 6.520 lagun egozan behar barik herrian. Horreetako 3.410 gizonezkoak ziran, eta 3.110 andrazkoak. 2000ko irailean, ostera, 2.660 ziran lanbakoak: 1.130 gizonezkoak eta 1.530 andrazkoak.

BARAKALDOI**Girotaldeak sendotu egingo ditu Udalak, horretarako beste hamar zaindari kontratatuta**

Udalak 20 lagun kontratatu ditu, herriko parke eta lorategiak zaintzeko: horreek dira Girotalde izenagaz ezagun diranak. Orain, egitasmoa abiatu zanetik urte bi joan diranean, Udalaren Inguralde alkatereak beste hamar lagun kontratatzeko erabagia hartu dau, Udaleko Urigintza zinegotziak, Diego Moyanok adierazotakoaren arabera. Inguralden behar egin gura dabenek, han jasoko beharko dabez eskaerak egiteko orriak, eta hilaren 9rako bueltatu. Hilaren 26an, ostera, aukeratutakoek trebakuntza ikastaroa hasiko dabe, eta apirilaren 1ean beharreen hasi. Aitatzekoa da Girotaldeetako zaindarien egun osoko jarduna egiten dabela, herriko berdeguneak zaintzen.

EGUSKIBEGI IKASTOLA

GURASOEN ELKARTEA

0 urtetik 16 urtera

- ◆ KALITATEZKO HEZKUNTZA
- ◆ INGELESA 4 URTETIK
- ◆ FRANTSESA 12 URTETIK
- ◆ HAURTZAINDEGIA: 7:30etatik 18:30etara
- ◆ JANTOKIA
- ◆ AUTOBUSA

Egia auzoa, II A - GALDAKAO - ☎ 944560264 / 944563008
Faxa: 944570517 - E-mail: galdakao@ikastola.net

BILBOKO UDALA AYTO. DE BILBAO
LAN EKINTZA BILBAO

gazte lanbidean
bbk Fundazioa

Europako Gizarte-Fondoa
Fondo Social Europeo

Bilbon Internet eta Teknologia Berrietako enpresa ideia eta enpresa-ekimenen 1. deialdia

➤ sariak 1. SARIA : 500.000 Pta.
5 ACCESIT : 250.000 Pta. bakoitzak

Eta gainera, deialdi honetara aurkeztutako proiektu guztiek eskuratu ahal izango dute **Ekintec Programak** enpresa-ekimen berrientzat eskaintzen duen laguntza-multzoa ere.

➤ informazioa, oinarriak jaso eta proiektuen aurkezpena

Proiektuak helbide honetan emango den ereduaren arabera behar bezala bete ondoren aurkeztu behar dira 2001eko martxoaren 16 baino lehen:

LAN EKINTZA-BILBAO
Enpresak Sortzen Laguntzeko Zerbitzua
Uribitarte, 6 . 48001 BILBAO
tel: 944 20 53 50
http://www.bilbao.net/lanekintza
e-mail: promocion@lane.bilbao.net

BBK GAZTE LANBIDEAN FUNDATZIOA
Jose Maria Olabarri s/n . 48001 BILBAO
tel: 944 24 38 91
http://www.bbk-gaztelanbidean.org
e-mail: empresas@bbk-gaztelanbidean.org